



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUS ON  
EGINEZ BIZI  
IZAN ZEN**

**3. ERANSKINA**

**ERAGILE, KATEKISTA ETA GURASOENTZAT**

Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza

## Jesus on eginez bizi izan zen <sup>1</sup>

Jesusek askatasun osoz maitatzen eta zerbitzatzen zuen. "Besteen alde eginahalak eginez" bizi izan zen. Ez zitzaion axola ez ospea, ez dirua ezta agintea ere. Aske da familia lokarriei dagokienez ere. Gizaki guztiak maite ditu. Bere eskaintza, erabatekoa da. Bere garaiko agintari erlijiosoek larunbatari zegokion legea ez zuela bete aurpegiratu zioten. Jesusek lege bakarra aitortu zuen: maitasunaren legea. Beretzat, maitasuna, errukia eta pertsonen ongizatea dago larunbataren legearen gainetik. Ez du errukirik gabeko legerik ulertzen, hori ez baita ez jainko lege ez berri on.



Ez du bereizketarik egiten pertsonen artean, denok gara anai-arreba. Beretzat, herritartasunak, erlijioak, ideia politikoek..., ez dute hainbesteko garrantzirik. Baina, argi eta garbi agertzen du behartsuak direna bere kutunenak; ez ekonomiaren aldetik ezer gutxi dutenak bakarrik, bere kutunenak dira gutxietsiak, baztertuak, beren egoera dela-eta, errukia eta laguntasuna behar dutenak...

Bere inguruan, baztertuak daude, ospe txarra duten pertsonak, esate baterako, zerga-biltzaileak eta prostitutak. Eskaleak, gosetiak eta gaixoak hurbiltzen zaizkio. Bekatarien, zerga-biltzaileen adiskide bihurtzen da eta beraiekin bazkaltzen du. Hartu-eman du emakumeekin eta jarraitzaileen taldean onartzen ditu. Pertsona guztien alde jartzen da, berengana hurbildu egiten da eta onartu egiten ditu.

Han edo hemen aurkitzen zuen hau edo bestea, guztiak, garrantzitsu ziren Jesusentzat. Behin eta berriz erakusten zuen hori, batez ere baztertuak edo edozein arrazoirengatik oinazetan zeuden pertsonak baziren. Askok bidean aurrera egiten zuen. Berak ez, geratu egiten zen, hurreratu eta gaitzak sendatzen laguntzen zien, sufrimenduak arinduz. Begirunez eta maitasunez hartzen zituen guztiak. Gizakia, bere antzeko norbait ikusten zuen bestearengan; Jesusentzat, pertsona bakoitza sagaratu da, Jainkoaren irudi. Aita beraren seme eta alaba gara. Jainkoa, Aita, batez ere gehien sufritzen daudenen ondoan dago beti.

Pertsona guztientzat Aita on eta errukitsua den Jainkoa agertzen digu Jesusek. Dagoeneko ez da onak gaiztoengandik bereizten dituen legearen Jainkoa; maitatzen, barkatzen eta salbatzen duen Aita-Ama da, ardi galduaren atzetik doana, etxekalte dan semearen itzulera irrikaz itxaroten duena, eta seme hori berriz etxean hartzen eta bere itzulera ospatzen duena. Bekatari bakar baten bihotz-berritzearekin bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretziarekin baino gehiago pozten den Jainkoa da. Urrun sentitzen dituen seme-alabei aparteko maitasunez begiratzen dien Jainkoa da.

Jesusen bizitza Jainkoaren esperientzia berri honetan oinarritzen da. Jainkoak hainbesteko maitasuna diola sentitzen du non denak, baita etsaiak ere, inor bereizi gabe, maitatzen dituen. Jainkoak erabat onartzen duela sentitzen du eta, ondorioz, denak onartzen eta barkatzen ditu.

♦.....  
1

Parrokiako familia katekesirako 2.gidatik hartuta, 2. gaia, Jesus on eginez bizi izan zen, 3. eta 4. or. Etorri eta ikusi! gida pedagogikoa

# ERANSKINA ERAGILE, KATEKISTA, GURASOENTZAT

Jesusen hurkotasunak pertsonak sendatu egiten ditu, bizia ugari ematen du. Jesusentzat ezinbestekoa da atsekabez, bakardadez, bazterketaz,... jantzitako egoerak sendatzea. Jesusen sendaketa ez da fisikoa bakarrik, arazoa ezabatzeaz gainera, gaixoa sustraitik berreskuratzen du: Jainkoarenganako uste osoa pizten du harengan, bakartasun eta etsipenetik askatu egiten du, bekatutik garbitu eta bizimodu duin eta osasungarriagora ireki.

## **Biblian horri buruz esaten dena...Lukas 19, 1-10**

Zerga-biltzaileak gaizki ikusita zeuden herri juduan, bidezkoa zena baino gehiago kobratzen zutelako eta erromatar agintariekin bat eginda zeudelako. Horregatik, gorroto zituzten eta jendeak alde batera uzten zituen. Zakeok badaki bekatari dena, eta guztiek bazterten dutena. Zerbait aditu du Jesusi buruz, eta entzundakoa egia den jakin nahi du.

Jesusek aurrea hartzen du eta Zakeorengana hurbiltzen da bere etxera doala esanez. Jokaera honek farisearrak asaldatu egiten ditu, publikano eta bekatari publikoekiko hartu-emanak beren burua lohitzea ekarriko diela-eta. Legeak bekatariaren etxean sartzea eta berarekin jatea debekatu egiten du, horixe baita ez lohitzeko bidea. Jesusek legea urratu egiten du norbait salbatu behar badu. Aurreiritzi gabe hurbiltzen da, ez du "kutsatzeko" beldurrik. Zakeok, horrela, Jesusen maitasunaz harrituta, pozik hartu zuen etxean. Zakeok bizimoduz aldatzen du, Jesusek trukean ezer eskatu gabe. Maitasunaren indarrak aldarazten du Zakeo.

Jesusen bitartez iritsi zen "osasuna" Zakeorengana. Jesus, agerpen eraldatzailea da, Zakeoren kasuan ikusi denez. Zakeoren kasuan, borondate oneko gizona dela ikus daiteke, azken batean, Jesusekin topo egitea bilatzen du eta nahi hori zintzoa da.

## **Begiratu Zakeori..., baina begiratu Jesusek egingo zukeen bezala!**

